



BETERRI-AIZTONDOKO ALDIZKARIA



AIURRI

1997ko otsailaren 28a, 53. zenbakia. Doan banatzen da.

**Eskualdeko
bertsolariak**



E U S K A L D U N O N

Gida

Elektrikariak
Suhiltzaileak
Iturginak
Aseguruak
Sarrailagileak
Bidaiak
Jatetxeak

Informazioa:
☎ 943-300222

K
O
M
E
R
T
Z
I
A
L
A

e u s k a l d u n o n
Egunkaria

Ileapaindegiak
Ikuskizunak
Argazkilariak
Hurtzaindegiak
Mekanikariak
Dentistak...


1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Joseba Erkizia, "Euskarazko kontsumitzaileak".
2. **GALDEZKA.**
Eta zuk, zer egiten duzu zure denbora librean?
3. **LARRAUL.**
Gaixotasunei buruzko hitzaldia.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Herri bideak berritzen.
Tibet askatzeko nazioarteko kanpaina.
Munillaren 25. urtemuga.
7. **ASTEASU.**
Aitzondo elkarte.
- 8-9. **BILLABONA.**
Joxe Mari Olarra espetxean.
Oskarbi txiki abesbatza maila gorenean.
10. **ZIZURKIL.**
Gasa jartzeko lanak.
11. **BASERRIA.**
"Baserriko produktuak", baserriko salgaien gida.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Eskualdeko bertsolari gazteak.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Eduarne Ustaritz andoaindarra Panaman.
- 16-17. **KIROLA.**
Euskalduna kirol elkarte.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **ZER BERRI?/LEHIAKETA**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.
Zuzendaria: Ainhoa Oiartzabal. **Maketatzailea:** IPAR, S.L. **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** IPAR, S.L. Donostia.
Lege-gordailua: SS-202/94
ISSN: 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



EUSKARAZKO KONTSUMITZAILEAK



JOSEBA ERKIZIA

Lehenengo batean gazteek euskaraz literatura gutxi irakurtzen dutelako kezkatuta azaldu zitzaidan lagun bat.

Izan ere, duela egun batzuk Mari Jose Olaziregi lasartearraren tesi doktora eman da ezagutzera komunikabideetan, eta ondorio nagusi bat haizatu da: hemengo gazteak ikasketak amaitu ondoren literatura gutxiago irakurtzen dute, batez ere euskaraz.

Datu kultural kezka garri bat baino gehiago atera daiteke hortik (literatur irakurketaren beherakada, ikusentzunkarietako lilura...), baina hel diezagogun euskarazko literaturaren irakurketarenari. Tesiaren egileak berak aurreratzen ditu zenbait soluzio, besteak beste eskolan literatura emateko modua aldatzea, irakurketa sustatzeko kanpainak komunikabideetan egitea eta abar.

Olaziregik dioenez "sorkuntza eta itzulpen lan onak ditugu eta ez dira ezagutzen". Hor behintzat bada datu positibo bat. Baina badira gehiago ere. J. M. Torrealdairen datuen arabera mila titulutik gora argitaratzen da urtero euskaraz gaur egun. Horren laurdena edo literatura da. Bide batez, azpimarra dezagun itzulpenak gure merkatuan hartu duen garrantzia, bai kopuruetan bai kalitatean. Itzulpen gintzari esker mundu osoko literaturaren eskaintza zabala dugu dagoeneko euskaraz (horra hor, adibidez, Literatura Unibertsalaren bilduma: ELZIEren eskutik aurki 100 titulu).

"Nork bere sorora ur" esango dit baten batek, itzultzaileen aldeko propaganda egiten ari naizelako. Ekar ditzagun, bada, beste datu batzuk hona. Adibidez, ehun milatik gora entzule dituzte euskarazko irratiek. Euskal Telebistan, berriz, hogeita hamar mila lagunek ikusten dituzte albistegiak euskaraz; ehun mila dira beste programa batzuk ikusten dituztenak; eta hortik gora kirol emankizun batzuen jarraitzaileak. Eta literaturaz kanpoko irakurleei buruz ere badugu zer esana: Aiurri honen tankerako herri aldizkarietia laurehun mila irakurle dituzte Euskal Herri osoan, eta prentsa egunero euskaraz irakurtzen dutenak hogeita hamar milatik gora dira Euskaldunon Egunkaria dela medio.

Horrelako kultur produktuaren kontsumoa ugartziz eragin handia izan behar du etorkizunean, euskal hiztun, irakurle eta idazle gaituen masa kritiko nabari bat izatea ezinbesteko baldintza baita euskararen gizarte egocera normalizazio bidean jartzeko.

"Guk euskera hori ez degu entenditzen". Zenbat aldiz entzun ote dugu hori orain urte batzuk gure aurrekoek esana? Arazoa ez zen, ordea, "euskera hori", euskara bizitzaren pasarte batzuetan bakarrik (nagusiki etxean eta famili edo lagun giroan) erabili izana baizik.

Gaur, ordea, telebistari esker adineko euskaldun zaharrak "albo saka", "atezaina" eta horrelakoak esaten ikasten ari dira kirol emakizunetan. Eta umekak hika hitzegiten marrakki bizidunetan.

Euskarazko kultur produktuok inoiz baino kontsumitzaile gehiago dituzte gaur. Ez dakit, hala ere, euskara dagoeneko "garapen eramangarrian" dugun, baina urteotako hedapen eta aniztasun honek fruiturik ekarri behar du, seguru.



Aldizkari honek Eusko Jaurritzaileak Kultur Saileraren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera Departamenduaren laguntza jaso du.

ETA ZUK, ZER EGITEN DUZU ZURE DENBORA LIBREAN?

Egungo hurrek, biharko egunean profesional onak izateko edo, ingelesa, solfeoa, dantza, informatika eta antzeko ikastaro gehiago egiten dute. Eskolan ikasten dutena nahikoa ez eta, hurrek, txikitan gauzak ikastea errazagoa omen denez, eskolaz kanpoko klase mordo bat izaten dute.

Horren guztiaren ondorioa, orokorrean, kalean geroz eta haur gutxiago ikusten dugula da. Hala ere, ezusteko pozgarri bat jaso dugu gure bailarako hurrei beren denbora librean zer egiten duten galdetzean; jolasean eta lagunekin ibiltzen direla erantzun digute gehienek.



Iban Márquez, ikaslea. Zizurkil.

Lagunekin ibiltzen naiz jolasean. Kirola ere egiten dut, futbolean jokatzen dut Danenako futbol taldean. Telebista gutxi ikusten dut, nahiago dut kalean lagunekin jolasean ibiltzea.



Miriam Navascuez, ikaslea. Andoain.

Gauza asko egiten ditut; lagunekin jolastu, telebista ikusi, aldizkariak irakurri,... Gauza bat egin edo bestea, denbora librea gustuko gauzak egiteko unea izaten da.



Andoni García, ikaslea. Billabona.

Futbol entrenamenduak edukitzen ditut eskola eta gero, astean bi aldiz. Entrenamendurik ez dudanean, lagunekin aritzen naiz futbolean, kalean. Beste batzuetan hitz egiteko biltzen gara ni eta nire lagunak, nesketaz gehienbat.



Uxue Telleria, ikaslea. Larraul.

Jolastu egiten dut. Parkean jolastea gustatzen zait, kanpoan. Eguraldi txarra egiten duenean etxe barruan ibiltzen gara jolasean.



Manex Larrarte eta Koldo Agirre, ikasleak. Asteasu.

Jolastu. Pilotan, futbolean eta horrelako gauzetan ibiltzen gara lagunak, gurasoak gure bila etorri aurretik. Kirola egitea asko gustatzen zaigu, baina ikastea ere gustatzen zaigu, Ingurunea batez ere.



Garañe Arribillaga, ikaslea. Andoain.

Denbora librea dudanean jolastea edo telebista ikusteak gustatzen zait. Eskolako orduetatik kanpo, balleta eta trikitixa ikastera joaten naiz, eta beraz, egunero ez dut denbora librerik izaten.



LEIZARAN
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK



**Talleres
Mendi S. L.**

Burdinezko piezen egintza,
planuen araberakoa.
Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.
Mekanizazioa.

Urrietako bidea, z/g. ANDOAIN
☎ 59 04 52 - 59 05 08

GAIXOTASUNEI BURUZKO HITZALDIA

Julian Bereziartua medikuak eman zuen hitzaldia

Gero eta gehiago bizi garelako edo, gero eta gaixotasun gehiago ditugu, eta horiek zaintzeko botika baino, askotan, alde aurretik hartzen diren neurriak hobek dira Julian Bereziartuaren esanetan. Bereziartua medikuak hezurren eta junturen gaitzaz, zahartzaroan agertzen diren gaixotasunetaz hain zuzen, hitz egin zuen duela gutxi herrian eman zuen hitzaldian. Gainera, herritarren baldere erantzuten aritu zen Bereziartua ordubetetik areago iraun zuen hitzaldian.

Hezurretako gaitzak hereditzian, birus kutsaduragatik edota denboraren eraginez sortzen direla esan zuen Julian Bereziartuak, eta beraz, "birusa hezurretako odolean sartzean, oso zaila da hori sendatzea. Era berean, hezurretako minbizia sendatzea ere zaila da oso", azaldu zuen medikuak. Hala ere, jende gehienak hezurretako desgastea (artrosia) eta erreuma gaixotasunak izaten ditu, osteoporosia edo hezurretako karea galtzearekin batera, eta beraz, horri guztiari buruz jardun zuen medikuak. "Erreumak hezurak handitu eta formaz alda-

tzen ditu. Euskal Herrian, gainera, hezetasuna dela eta, gaixotasun hori duen jende asko dago", azaldu zuen Bereziartuak. Gaixotasun honen jatorria, ordea, ez dakite zein den, eta beraz, ez du konponbide jakinik: "Hala ere, erreuma dugun lekuan masaia ematea eta beroa jartzea ona da, nahiz eta gaixotasuna ez sendatu, mina arintzen baitu".

Esnea eta esnekiak hartu

Egunero gramo bat karea hartuz gero, hezurretako karea gutxiago galduko genuke Bereziartuaren esanetan. "Behin hogecita hamar urte beteta, urtero joaten gara karea galtzen". Izan ere, eta medikuaren esanetan, hobek da gaixotasunak aurrikusteko neurriak hartzen joatea, behin gaixotasuna edukita botikak hartzea baino.

Beste hainbat gaixotasunez ere mintzatu zen Bereziartua, eta entzuleek egin zituzten galderak gogo onez erantzun zituen.




Bereziartua iaz Asteasun emaniko bitzaldian

PERUKO DIAPOSITIBA EMANALDIA

**Martxoaren 7an, arratsaldeko
21:00etan, Kultur Aretoan**

Sei hilabete luzez izan da Karlos Irazu Iarrauldarra Perun. Cusco herrialdeko Urubamba herrian izan da hain zuzen, eta bertako argazkiak nahiz beste leku batzuetara eginiko txangoen diapositibak eskainiko ditu Karlosek datorren hilaren hasieran. Machupichukoak, *Inti-raini* izena duen festakoak, eta gauza gehiagori buruzko 300 diapositiba inguru izango dira ikusgai.



HERRI BIDEAK BERRITZEN

Egoera txarrean dauden bideak berrituko dituzte

Udalak herriko bideak berritzeari ekingo dio aurten ere. Helburua, herriko bideak txukun eta garbi mantentzea da. Bideak beharraren arabera berrituko dituzte urtero.

Iaz Leizotz 1. zonaldea berritzeko 3.775.750 pezetako dirulaguntza eman zuen Behemendik, eta dirulaguntza hori ez galtzeko berehala egin beharko dituzte bidea berritzeko lanak. Horrezaz gain, aurten egoera oso txarrean dauden lau bide berritzea onartu du udalak. Urrizti-Dorrontxola, Larramendi, Talai eta Illarramendi baserrietarako bideak berritu nahi dituzte, baina aurrekontuak onartu arte ezin izango dute lan horiek egiten hasi. Berritze lan horietarako ere Behemendi elkartearen dirulaguntza izango dutela espero du udalak.

Auzolana

Bestalde, iaz bezala, Leizotz, Goiburu, Buruntza eta Sorabilla auzoetako bideak garbitzeko auzotarren laguntza eskatuko dute. Sasiak garbitzeko Behe-

mendi elkartearen makina erabiliko dute. Pili Bera-sainek azaldu digunez, iaz harrera oso ona egin zioten herritarrek egitasmo honi, eta aurten ere horrela izatea espero du: "Auzotarren laguntza ezinbestekoa da. Gainera, urtean bideak bi aldiz garbitu nahi ditugu. Bideak urtean behin garbitzea ez da nabikoa, euriak eta eguraldi txarrak berriro bidea zikindu eta trabatu egiten baitu".



KULTUR EKITALDIAK

Erakusketa, musika eta hitzaldi ugari martxoan

Emakumearen nazioarteko eguna ospatzeko ekitaldi ugari antolatu du Udaleko Kultura Batzordeak. Esate baterako, "Emakumea lanean" izenburupeko argazki erakusketa izango da ikusgai Urigain Kultura etxean martxoaren 7tik 16ra bitartean. Erakusketaz gain, emakumearen lan esku-bideak eta hala haurren hezkuntzan nola etxeko lanetan gizonezkoek nahiz aitek duten egitekoa aztertzeko hitzaldiak egingo dira martxoaren 11n eta 12an, arratsaldeko 19:00etan. Horrezaz gain, "Ni contigo ni sin ti" antzezlan izango da ikusgai martxoaren 15can, La Salle antzokian, arratsaldeko

20:00etan. Era berean, Beñat Arregi andoaindarren argazki erakusketa izango dugu ikusgai martxoaren 21etik 30era.

Musika emanaldiak

Martxoan Maite Oiartzunen piano kontzertua izango da Olagainen, arratsaldeko 20:00etan. Euskal musikako emanaldiak berriz, La Salle antzokian egingo dira eta sarrerak Urigain Kultura Etxean egongo dira salgai, aldeztatik 600 pezetatan. Egun berean 700 pezeta balioko du sarrerak.

S T O P
LIBURUDENDA
 TESTU LIBURUAK
 AUKERA ZABALA LIBURUTAN
 (Ingelesezt, frantsesezt,
 italieraz...)
 Agustin Leizta 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

— FERRETERIA
GOROSTIDI
 — BURDINDEGIA
SUKALDERAKO TRESNERIA
 Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN
 Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

minikost
LIBURUDENDA
PAPERDENDA
 Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57
 ANDOAIN

TIBET ASKATZEKO NAZIOARTEKO KANPAINA

Andoaingo Udalak burutuko du kanpaina

Kanpaina horren helburua Pekinek berrogehi urte luzez okupatu duen herriarekiko ekintza solidario bat egitea da. Horrela, 1997. urteko martxoaren 9 eta 10ean Andoaingo Udaletxeko balkoiko hagan Tibeteko bandera ipiniko dute.

Kanpaina horren eskaria nazioarteko partidu erradikaleko eta parlamentu europarreko diputatu den Olivier Dupuis-ek egin du. Bere idatzian, udala Tibet herriaren askatasuna aldarrikatzeko kanpainari atxekitzea eskatzen du. Beraz, kanpaina horretako ekintza moduan, 1997ko martxoaren 9 eta 10ean udaletxeko balkoiko hagan tibetarren bandera jartzea eskatzen du.

Horrezaz gain, martxoak 9ean Ginebran egingo den bigarren manifestaldi europarrera joateko deialdia luzatzen du. Iaz 7.000 lagun bildu ziren Bruselaseko kaleetan.

Nazioarteko kanpaina

Iaz egin zen lehenengo aldiz Tibet herriaren askatasuna eskatzeko kanpaina. Orduan, 25 herrialdetako 607 alkatek hartu zuten parte kanpainan. Aurten ordea, bost kontinenteetara zabaldu da kanpaina, eta tibetarren bandera 3.000 udaletxetan ezarri nahi dute. Ekintza solidario horrekin, Tibet herriaren askatasuna eta Panchen Lama gazte espainiarra aske uztea eskatuko da. Andoaingo Udaleko Gizarte Ongizate batzordeko lehendakaria den Elena Arribillagak azaldu digunez, Andoaingo herriak gustura egin du bat kanpainarekin: "Ekintza simple horrekin, Tibet herriarekiko solidario izan nahi dugu".


UDAL MUSIKA ESKOLA LEKUZ ALDATU DUTE

Otsailetik aurrera Ondarreta ikastetxea izango da egoitza berria

Lekualdatzearen arrazoi nagusia, Gabriel Aresti kaleko musika eskolako egoitzaren egoera txarra izan da. Horrezaz gain, musika eskolaren dimentsio txikiak zirela eta, eskola, herrian zehar gela ezberdinetan sakabanatuta zegoen, eta egoera horrekin amaitzeko, Ondarreta ikastetxea izango da udal musika eskolaren egoitza berria.

Basteroko kulturgune berria egin bitartean egongo da Musika Eskola Ondarreta ikastetxean. Orain artean, Kultur Etxean eta Leizaran ikastetxean ematen ziren musikako klaseak. Egun, klase guztiak Ondarreta ikastetxean emango dira, eta eskolako zuzendaria den Mikel Matek esan digunez gustura dago egoitza berriarekin: "Behin behineko kokagunea denez, ez dago guztiz insonorizatuta baina hala ere nahikoa egoera oncan dago. Horrezaz gain, klase guztiak bertan daude, eta entsaiotarako ezinbestekoa den elkarlana posible da orain. Hala ere, entsaioak egiteko gela egoki baten falta dugu, eta Bastero egitean arazo hori bukatuko dela uste dugu". Bien bitartean orain bezala jarraituko dute lanca; gazteci musika formazioa eskaintzea eta musikaz gozaraztea da

musika eskolaren helburua. Hori dela eta, kontzertuak antolatzen eta asteroko entsaiu orokorrak prestatzen jarraituko dute musika eskolako ikasle eta irakasleek. Ihauterietako kontzertuaren ondoren, Santa Krutzeko kontzertua izango da hurrengoa.



Ondarreta ikastetxea

MUNILLAREN 25. URTEMUGA

Urrian aktibitate ugari antolatuko dituzte urtemuga ospatzeko


Aurten hogeitabost urte bete dira Munilla taldea sortu zenetik. Ordutik gaur egunera arte, ordea, gauzak asko aldatu dira:

taldean lan egiten duen begirale kopurua txikia da, eta taldearen etorkizuna oso zalantzan dago.

Uda partean 25 urte beteko ditu talde horrek. Garai hartako Felix apaizak orduko beharrei erantzuna eman nahian Munilla taldea sortu zuen 1972. urtean. Hasieran, Izeta edota Campezo lokaletan biltzen ziren, baina geroago, Zudaireko egoitzan hasi ziren biltzen. Munillako begiralea den Maider Sagarnak esan digunez, Munilla taldearen sorrera eta garapena aztertuko dute. "Munilla sortu zenetik gaur egunera arte lau belaunaldi ezberdinek hartu dute parte taldean, eta gu, azken belaunaldikoak gara. Orain, Munillaren inguruko dokumentazio guztia bildu eta aztertu nahi dugu".

Egungo egoera

Egun Munilla taldean lan egiten duten begiraleen kopurua txikia da: "Arazoa ez da dirulaguntzarik ez dugula edota etxea kondizio txarretan dagoela. Arazoa, dugun lan kopururako begirale gutxi gaudela da. Horregatik, kanpaina berezi bat egingo dugu begirale gehiago lortzeko eta haurrak Munillara joan daitezen animatzeko". Aurten, gainera, Munillaren 25. urteurrena dela eta, urrirako zenbait aktibitate antolatuko dituzte. Oraindik hilabete batzu falta diren arren, hasi dira horretarako lanean Munillako arduradunak: "Oraindik gauza asko zehazteko eta lotzeko dago, baina gure asmoa urriko aste batean hitzaldiak, argazki erakusketa, bideo emanaldia eta haurrentzako jokuak antolatzea da. Argazki erakusketa egiteko Munillatik igaro diren 250-300 pertsonekin (sukaldariak, begiraleak eta jende gehiago) hartu-emanetan jartzekotan gabilta, baita Felix apaizarekin ere. Horrezaz gain, Munillari buruzko bideo bat egin nahi dugu. Lan askotxo beraz".



Helburua eta iharduerak

Munilla atsedean taldeak, gaztetxoak euskal giroan beren herriko aktibitateetan parte hartzea nahi du. Horretarako, tailerrak, mendi irteerak eta kanpaldiak antolatzen dituzte. Gainera, Ihauterietan, Gazte Astean, San Juanetan edota Santa Krutzetako festetan parte hartzea da bere beste iharduera. Jubilatuentzako kanpaldiak ere antolatzen dituzte, besteak beste.

KALEJIRA TALDEAREN AURKEZPENA

Euskal presoek eskubideen aldeko kalejirak Ihauterietan egin du aurkezpena. "Gipuzkoano"-tik Goikoplazara iritsi bitarteko kaleak alaitzeaz gain, gartzelako egoera eta Cesid-i buruzko gorabeherak salatzen salatzeko parodia bat antzeztu zuten Goikoplazan. Ondoren, hamaketakoa egin zuten kalejiran eta parodian parte hartu zuten gazteek.




Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



Altzariak

Kaletxiki, 6 Fax - Telf. 59 07 61
ANDOAIN

AITZONDO ELKARTEA


Urte amaieran omenaldia egingo diote pertsonaia ezagun bati

*Duela 40 urte inguru sortu zuten Aitzondo elkarteak Asteasun. Hasiera batean, Goikokaleko lokal txiki batean egin zuten elkar-
tea, eta lagunartean biltzeko tokia izan zen. Orain, ordea, lokal handiagoa dauka 134 bazkide dituen Aitzondo elkarteak, baina duela berrogei urte bezala, lagunartean elkartzeko tokia izaten jarraitzen du.*

Izen bereko futbol ekipo bat eduki arren, Aitzondo izenak afariak eta bazkariak egiteko tokia ekartzen die gogorra asteasuarrei. Izan ere, asteburuetan nahiz astegunetan mugimendu handia du elkarteak, baina ez elkartean ekintza asko antolatzen direlako, afariak eta otorduak egitera jende asko joaten delako baizik. Anselmo Vitoria elkarteko lehendakariak esan digunez, gainera, konforme daude Aitzondo elkartearen soilik lagunartean biltzeko tokia izatearekin: "Hori da elkartean egiten dugun ekintzarik garrantzitsuena, jendea bertan biltzea". Urtero berritzen dute elkartearen zuzendaritza, eta aurtengoa Anselmo Vitoriak, Jesus Mari Narbarrek, Joxe Migel Landak, Inazio Tapiak, Jose Luis Irazuk eta Juan Izuetak osatzen dute.

6 bazkide berrientzako lekua

Lehen aipatu dugun bezala, 134 bazkide dira egun, eta sei bazkide berrientzako lekua dutela esan digute. Bazkide asko gazteak dira, duela bi urte sukaldeak berritzeko



lanak egin baitzituzten, eta lanak ordaintzeko edo, gazte asko sartu ziren orduan elkartera. Hala ere, aipatzekoa da bazkide guztietatik bat bera ere ez dela emakumea.

SANTA AGEDAN BILDUTAKO DIRUA

-121.000 pezeta Saharako euskal karabanari emango diote
-100.000 pezeta baino gehiago euskal presoari laguntzeko izango da

Santa Ageda bezperan kantari irten ziren bi taldeei diru asko eman zieten herritarrek. Talde batek 121.000 pezeta bildu zituen, eta diru hori Saharako euskal karabanari emango diote. Karabana horrek Saharar herriarekiko euskal elkartasuna adieraztea du helburu, gure gizartean bertako egoeraren berri ematea eta bertako errefuxiatuei laguntza ematearekin batera. Karabana horrek Saharako herriaren inkomunikazioa hautsi nahi du, eta karabana osatzeko behar dituzten ibilgailuak eta

materiala erosteko dirua behar dute antolatzaileek. Beraz, Asteasun Santa Ageda bezperan bildutako dirua horretarako erabiliko dute.

Eskerrak eman lagundu zutenei

"Euskal presoak Euskal Herrira" izeneko taldeak eskerrak eman nahi dizkie beren laguntza eman duten herritarrei. Berrogehi lagun inguru irten ziren kantuan talde honekin, eta Ezkerra anai-arreben trikitixa soinuek eta Amaia Agirre eta Aitor Sarasuaren bertsoek girotu zuten kantaldia.

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK
EDURNE

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

KIROL JANTZIAK

Lirana

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 ☎ 59 44 47

ANDOAIN

JOXE MARI OLARRA ESPETXEAN

Udalak bere askatasuna eskatzen duen mozioa onartu zuen

Hilaren seian atxilotu zuten Billabonan Joxe Mari Olarra Herri Batasunako mahai nazionaleko kidea. Olarra, gainera, Gasteizko legebiltzarreko diputatua da, eta gartzelan sartu duten HBko mahai nazionaleko laugarren kidea da. Mobilizazioak eta batzar informatiboak egiten ari da Herri Batasuna egun hauetan bere askatasuna eskatzeko, eta gainera, Olarra atxilotzeko arrazoia izan den Alternatiba Demokratikoa delakoa azaldu diete herritarrei.

Hasieran Caranbanchelgo gartzelara eraman zuten arren, Alcalako gartzelara eraman zuten biaramunean Joxe Mari Olarra. Errejimen berezi bat ezarri diotela azaldu digute Amnistiaren Aldeko Batzordekoek: "Hilean bi gutun bakarrik idatz ditzake, eta besteak beste, lagunen bisitarik ezin du jaso".

Udalbatzarra

Herri Batasunak Olarraren askatasuna eskatzeko mozioa aurkeztu zuen udal batzarraren aurrean. Herri Batasunako Mahai Nazionaleko kideen askatasuna eskatzeaz gain, Euskal Herria eta Estatu espainiarraren arteko gatazka elkarrizketa bidez eta Euskal Herriko eskubideen onarpenaren bitartez etorri behar duela esaten zuen mozioak. "Espainiar estatuari deialdia egiten diogu elkarriketaren bideari ekin diezaion, errepresioaren bidea erabat baztertzuz", esanaz amaitzen zen mozioa. Bidean taldea abstenitu egin zen mozioa bozkatu zutenean, mozioko puntu batzuekin ados egon arren, moziokoak, ETAren biolentzia ez zuelako gaitzesten. EAJ-PNV alderdiak Auzitegi Gorenaren erabakia, hau da, HBko Mahai Nazionaleko kideak atxilotzea, eztabaidagarria izan daitekeela dio, "baina Mahai Nazionaleko kideen jarrerak HBri propaganda besterik ez dio egiten", adierazi zuen Xabier Zabala zinegotziak. "Gainera, Gobernuari Euskal Herriko



gehiengoaren nahia errespetatzeko eskatzeaz gain, ETari edota ENAMi ere indarkeria alde batera uzteko eskatzen diogu, gatazkari irtenbidea bilatzen hasteko". Eusko Alkartasunak ez zuen parte hartu udalbatzarrean. Azkenean, zinegotzi eta herritarren arteko eztabaidaren ondoren, HBren aldeko lau botuekin, EAJ-PNVren aurkako botu batekin, eta Bidean taldeko sei zinegotzien abstentzioarekin, mozioa onartu egin zen.

"Bake proposamena gartzelaratu dute"

Billabonako Herri Batasunaren esanetan, Olarra eta HBko gainerako Mahai Nazionaleko kideak bake proposamen bat kaleratzeagatik gartzelaratu dituzte. "Orain guk azalduko diegu herritarrei, beraz, zein den bake proposamen hori: alternatiba demokratikoa, alegia". Era berean, adierazpen askatasunaren aurkako eraso horren aurrean, instituzioetan edukiko duten jarrera normalizatua ez dela izango azaldu digute HBko partaideek.

GOROSTI
HERBORISTERIA

- ✓ DIETISTA
- ✓ BARATZAKO FRUITU NATURALAK
- ✓ INTSENTSUA
- ✓ KANDELAK

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
Billabona

OGI ZURI
OKINDEGIA, S.L.
Lizarratekoa. 32 / Elizmendi auzoa.
20159 ASTEASU/☎ 683292 - 691896

OGI • GOXO

**OGI berezi eta artesanak
...
etxerainoko zenbitzua**

**TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
• TELAK-ZIGARRILOAK
• HOJALDREAK • MAGDALENAK**

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

ESKU LANAK
PUNTUZ PUNTU

**Puntu-Kruzean
espezializatutako denda**

- Hariak • Ehunak
- Grafikoak • Kit-ak
- Petit-point
- Gantxiloa

**ESKERRIK ASKO BEZEROEI,
GURE LEHENENGO
URTEBETETZEAN**

Zumalakarregi, 7
TOLOSA
☎ 65 28 81

OSKARBI TXIKI ABESBATZA MAILA GORENEAN

Zumarragako lehiaketan hartuko du parte martxoaren 2an

Bi urte dira Oskarbi txiki abesbatza sortu zela. Hogeita hamar hurrek osatzen zuten orduan taldea, eta egun, berrogeita hamar hurrek hartzen dute parte abesbatzan. Parkeko eskoletako lokaletan entsaiatzen dute astean bi aldiz, eta orain, entsaiu gehiago egiten ari dira martxoaren bian Zumarragan izango den lehiaketan parte hartzeko.

Zumarragako lehiaketa horretan sei taldek hartuko dute parte, eta deitu dituzten talde horiek bakarrik har dezaketela parte argitu digu Axier Vitoria Oskarbi txikiko zuzendariak. Beraz, Oskarbi txiki abesbatzak maila altua duela azaltzen du horrek. Maila altu hori ziurtatzeko, ia egunero joaten dira entsaiatzera hamabitik hamalaura urte bitarteko gazteto horiek. Lehiaketek, bestalde, haurrak abestera motibatzen dituztela adierazi digu Axierrek. Talde horretaz gain, zortzi urtetatik hamarrera bitarteko beste 50 hurrei erakusten die Axierrek abesten:



Oskarbi txiki abesbatza Errenderian

“Oskarbi txikiri jarraipena emateko osatu dugu taldea. Hala ere, taldea egiteko ideia dotrinako lagunei otu zitzaion, Elizako abesbatza osatzeko”. Axierrek bi talde hauek zuzentzen ditu eta Sofia Quilezek berriz, haurren ahotsa lantzeko ariketak egiten ditu abesbatzako umeekin. Oskarbi abesbatzako kide dira Sofia eta Axier, eta aitortu digutenez, haurren taldeak gogo gehiago du hobetzeko eta lehiaketetan parte hartzeko nagusien taldeak baino.

Eresargi izen berria

Abesbatzen federazioan sartzeko asmoa dute Oskarbi eta Oskarbi txiki abesbatzek. Hori egin ahal izateko, ordea, izena aldatu egin beharko dute. Eresargi izango da Oskarbi izenaren orde zuzen hemendik aurrera erabiliko dutena, eta aldaketa horren arrazoia aurrez izen bereko talde batek erregistroan izena emana zuela izan da.

IRRINTZI ELKARTEKO XV. MUS TXAPELKETA

Ricardo Aranzabe eta Jose Luis Goiak osaturiko bikoteak irabazi du aurtengo txapelketa

Urtero-urtero antolatzen dute Irrintziko lagunek mus txapelketa. Abenduan hasi zuten txapelketa, eta bi talde ezberdinetan jokatu dute otsaila arte hamabi bikoteek. Bi talde horietako bikoterik onenek azken mus saioa jokatu dute, eta otsailaren lehenean izan da saio hori. Aranzabe eta Goiak irabazi dute txapelketa, Mikel Uzkudun eta Kuss Zurutuza gelditu dira bigarren postuan, Mikel Navaroa eta Karlis Medrano berriz, hirugarrenean, eta Juanito Uzkudun eta Juan Ignazio Etxeberriak laugarren postua lortu dute.



Irabazleak lehendakariarekin

Mikel Navaroa berriro ere lehendakari

Egun berean Irrintziko bazkideen batzarra egin zuten elkarteak. Iazko balorazioa egin eta aurtengo plangintza zehaztu ondoren, Mikel Navaroa aukeratu zuten berriro ere elkartearen lehendakari.

Goiko
OPTIKA

ikasleentzako eskaintza berezia

Arteta z/g
20140 ANDOAIN
☎ 590955

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURITASUNA!!

Kaleberria 22

Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

GASA JARTZEKO LANAK

Zizurkil beheko etxebizitzek gas naturala eduki ahal izateko lanak

Lantokietan gasa jartzeko lanak egin diren arren, oraindik ez dute Zizurkilgo bizilagunek gas naturala beren etxeetan jartzeko aukerarik. Orain, ordea, 2.500 metrotan zehar hodiak jarriko dituzte gasa etxeetara ailegatzeko.

Billabona eta Zizurkil artean dagoen oinezko zubia-
ren azpitik igaroko dute lehenengo gas hodia. Hodi horrek Billabonako gas naturalaren hodi nagusitik hartuko du gasa, eta hodi sare baten bitartez, herrian zehar zabalduko dute ondoren gas naturala. Ubare auzotik geltoki aldera igaro da hodi bat, eta Joxe Arregi plaza-
ra arte beste hodi bat egingo dute. Bertatik bi norabide ezberdinetan beste bi hodi sare berri egingo dituzte; bata Asteasu aldeko etxebizitzak hornitzeko, eta bestea berriz Pagamuño auzoko etxebizitzetarako.



Gas hodiak herrian zehar

JOXE ARREGIAREN HERIOTZAREN XVI. URTEMUGA

Ehun lagun inguru bildu ziren omenaldian

Otsailaren 13an hamasei urte bete ziren Joxe Arregi zizurkildarra jasandako torturen ondorioz hilik suertatu zela. Egun horretan hilerrian egin zioten omenaldia herritarrek, eta hilaren hamaseiean

ekitaldi politikoa eta bazkari herrikoia egin zuten. Amnistiaren Aldeko Batzordekideek ekitaldi horretan adierazi zuten, egun duela hamasei urteko egoera berean gaude.

Duela hamasei urteko egoera bera

Hilaren hamaseiean Joxe Arregiri egin zioten omenaldian, ehun lagun inguru bildu ziren. Lore sorta, Agurra dantza, kantu batzuk eta bertsoak eskaini zizkioten herritarrek Joxe zenari, eta behin ekitaldi politikoa amaitu ondoren, Urkamendi elkartearen bazkaldu zuten.

Joxe Arregi omentzeaz gain, Jesus Mari Aranzamendi eta Eugenio Aranburu hilik agertu diren euskal preso politikoa eta Herri Batsuneko kidea ere omendu zituzten. Izan ere, "duela hamasei urte bezala, egun ere Estatuaren bortizkeria pairatzen ari gara Euskal Herrian", esan zuten Amnistiaren Aldeko Batzordekideek. Era berean, EAJ-PNVren jarrera salatu zuten, "suftimendu honetan duen arduragatik".

ZURE PEUGEOT AGENTEA

AIZMENDIZABAL

AUTOAREN KONPONKETA MEKANIKO ETA ELEKTRIKOA.
INJEKZIOA ETA TAPIZERIAREN GARBIKETA

Bº Elbarrena-Pol. Industrial, 15 - ☎ 69 23 78 - ZIZURKIL



PEUGEOT

Andoain

"BASERRIKO PRODUKTUAK", BASERRIKO SALGAIEN GIDA

Oraingoz ez dago Beterri-Aiztondoko baserririk gida horretan

Baserriko produktuak izeneko gidak, baserrian bertan egiten diren produktuak zeintzuk diren eta non egiten diren zehazten du. Hala ere, ezin du nahi duen baserri

orok bertan bere ekoizpena iragarri; baserriko produktuek jatorrizko izendapena edo labelaren barne egon beharko dute, eta gainera, osasun erregistroa eduki beharko dute.

A Gipuzkoako Mendi Nekazaritza Elkartearen ekimen honek, Behemendi taldearena hain zuzen, urtebete egin du aurre. Baserriko produktuen salmenta zuzena erregulatzeaz gain, jendea baserriko produktuak zuzenean errotera bultzatu nahi dute ekimenaren arduradunek.

Horretarako, bide seinaleak jarri dituzte euren produktuak ekimen honen barruan salduko dituzten baserrien alboetan. Seinale horiek, baserriaren izena eta bertan ekoizten eta saltzen dutena zer den adierazten dute. Era berean, urtero, ekimen honetan parte hartzen duten baserriak biltzen dituen

gida bat argitaratzen dute. Izan ere, baldintzak betetzen dituzten baserriek, hau da, jatorrizko produktua era osasungarri batean egin eta saltzen duten baserriek, nahi dutenean eman dezakete ekimen honetan parte hartzeko izena eskualdeko mendi nekazaritza elkartearen.

"BASERRIA BIZIRIK"

Herriko baserri guztien datuak bilduko dituzte



Andoainen nekazaritzatik bizi den biztanlegoa nahikoa zaharra da. Ondorioz, baserriaren etorkizuna ziurtatzeko eta nekazaritza iharduera ekonomiko errentagarria izateko, ahaleginak egingo ditu Andoaingo

Udalak Behemendi mendi nekazaritza elkartearekin batera. Ondorioz, lehenik eta behin, herriko baserri guztiak bisitatu eta baserrien egoera ezberdinak nola baserritarrek aurrera jarraitzeko dituzten asmoak aztertuko dituzte.

Behin datu horiek guztiak eskuartean dituztela, nekazaritzatik bizimodua ateratzen jarraitu nahi duten baserritarrek bildu eta beren ekoizpena ahalik eta errentagarrien nola egin aztertuko

dute. Era berean, 90 bazkide dituen herriko kooperatiba indartu eta nekazal auzo ezberdinetako ordezkariak biltzen diren batzordea dinamizatu nahi dute, Andoaingo nekazaritzaren onerako.

	<p>HOL-ATZ</p> <p>VACSOL · WIR[®] TRATAMENDUA EGURRARENTZAT</p>	
<p>PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA</p>		<p>Elbarrena, 2/g. ☎ 69 30 63 - 69 07 34 ADUNA</p>

ESKUALDEKO BERTSOLARI GAZTEAK

"Bertsozaleek bertsolaritzari buruzko telebista programa eskatzen digute"

Beterri-Aiztondoko hiru bertsolari gazteen bildu gara hemengo bertso eskola, bertso saio, eta oro har, bertsolaritzari buruz hitz egiteko. Andoaingo Aitor Mendiluze eta Jokin Sorozabalekin batera Amaia Agirre billabonatarra agertu da elkarrizketara, eta Jesus Mari Irazu larrauldarra ere gonbidatu genuen arren,

ezin izan zuen agertu solasaldira. Egun, bertso saioak gutxitu egin diren arren eta bertsoei buruzko telebista programarik ez badago ere, bertsozaleetasunak indar handia du gure artean; ikusi besterik ez dago bertso eskoletan ikasten ari diren gazteen gogo. Hori diote behintzat gure bertsolari lagunek.

Bertso eskolak, arautu gabeko klaseak

Hiru bertsolariak bertso eskoletan ikasitakoak dira, eta egun, Aitor eta Amaia bertso eskola ezberdinetan aritzen dira bertsoak irakasten. Jokin Sorozabal ere urte askotan aritu da Tolosako bertso eskolan irakasle lanetan, eta gaur egun Irazu aritzen da lan berean. Gaztetxo ugari hurbiltzen da bertso eskoletara, "baina serio aritzen direnak eta benetan aurrera jarraitzen dutenak gutxi batzuk dira; benetako afizioa dutenak, alegia. Asko, kuriositateak jota, bertsoaren mundu hori nolakoa den ikustera etortzen dira", esan digu Aitorrek, bertsolaritza modan egoteak bertso eskoletan eraginik izan duela aitortuz. Jokinen esanetan, bertso eskolan giro ona baldin badago talde horrek aurrera jarraitzen du, eta horren adibideetako bat Zizurkil goiko bertso eskola dugu: "Ikasleak elkarrekin oso ongi konpontzen dira, eta beraiek hartzen dute klaseko iniziatiba", azaldu digu Amaiak harro bere ikasle taldearengatik.

Jokin eta Aitor Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteak kide dira, eta biak, bertso eskoletaz arduratzen den batzordean daude. "Bertso eskoletan zer eta nola erakutsi ez dago araututa, bakoitzak berak ikasi duen moduan edota ikusi duenaren arabera erakusten du", azaldu digu Jokinek. Beraz, eta elkartearen erronketa-ko bat, bertsoak erakusteko materiala nola irakasleak prestatzea da. Era berean, bertso eskolak jendea bertsolaritzaren inguruan biltzeko dira, "eta

gainera, ez dira bertsolariak sortzeko bakarrik, baita gai-jartzaileak ere, besteak beste". Finean, bertsolaritzaren inguruko mugimendua landu nahi dute piskanaka-piskanaka.

Bertsozaleen elkarteak

Mila eta ehun bazkide inguru ditu Euskal Herriko bertsozaleen elkarteak, eta bakoitzak bere mailan egiten du lan bertan. "Gazteoi kosta egiten zaigu elkartearen martxa hartzea, jende bera dabil beti lanean. Hala ere, hori da oraingo apostua; ahalik eta bertsozale gehien biltzea, hain zuzen", esan digute bertsolariek. Elkarte kultural guztien moduan, diru faltan dago bertsozaleen elkarteak ere, eta hori konpontzeko kanpaina bat jarri dute martxan. Arazo horri aurre

egiteaz gain, lan ugari dute eskuartean elkarteko kideek, "bertso zaharrak jaso, bertsoen bilketa lana egin, bertso eskolak bultzatu eta lan gehiago ari gara egiten, besteak beste".

Bertso saioak eta telebista

Bertso saio gutxiago antolatzen da egun. "Bertso saioek ez dute dirurik ematen, eta beraz, zerbaiten alde dirua ateratzeko geroz eta saio gutxiago antolatzen dira", esan digu Aitorrek. Izan ere, telebistaren eraginez bertsoak modan jarri ziren, eta ondorioz, bertso saioek arrakasta gehiago zuten duela urte gutxi. "Hala ere, zaletuak ez dira gutxitu, telebistaren eraginez hurbildu zen jendea da interesa galdu duena", azpimarratu digu Mendiluzek.



Jokin Sorozabal, 30 urte. KRAFFT-eko langilea



Aitor Mendiluze, 21 urte.
Peritos-eko ikaslea

“Zaletuak ez dira gutxitu, telebistaren eraginez hurbildu zen jendea da interesa galdu duena”

“Bertsozaleek bertsolaritzari buruzko telebista programa eskatzen digute”, aipatu digu Sorozabalek, baina Euskal Telebistarekin ez direla bertsolaritzari buruzko saio bat egiteko ados jarri gaineratu digu. “Telebistakoek ezin dituzte hapateko bertsoak kontrolatu, aurrez ez dakite bertsolariek zein gai ukituko duten. Beraz, gustuko ez zuten gaia ez zuten emititzen, bertsoa ona ala txarra izan zen kontutan hartu gabe”, dio Sorozabalek. Bertsolariak erabaki horrekin ados ez daudelako eta Euskal Telebistarekin dituzten harremanak nahikoa hotzak direlako, oraingoz, ez da bertso programarik emitituko telebistan.

Bertsoa ekitaldi orotan

“Betiko gaiari buruz betiko bertsoak abestera behartuta egoten gara askotan”, esan digu Amaiak, eta gainera, askotan eskerrak ere ez dituztelako jasotzen kexatu da. “Ez guk ez gure aurrekoek inoiz ez dugu ezetz esaten ikasi. Hau da, edozein txoko eta baliabiderekon konformatzen gara bertsoak abesteko orduan”, gaineratu du Sorozabalek, eta hori zenbaitetan bertsoak gustura abesteko oztupo izan arren, horrela jendearekin harreman zuzenagoa lortzen dutela adierazi digu. Era berean, zenbait leku erdaldun eta ez bertsozaleetan, bertsoak abesteak izugarritzko garrantzia duela aipatu du Jokinek: “Kultura hau zabaldu egin behar dugu, bestela hemen inguruan bakarrik geldituko gara bertsoak abesten”.

Saioetara zein bertsolari deitzen dituzten galdetzean, argi eta garbi esan digute bertsolari elite bat dagoela, eta elite horrek ia saio guztiak egiten ditu, “orain, gainera, saioetan ahalik eta jende gehien biltzeko bertsolari ospetsuak deitzen dituzte”.

Iniziatiba hartu

Bertsolari gazte eta oso ezagunak ez direnak, saio gutxi izaten dituzte urtean zehar. Bertso afarietarako berriz, maiz deitzen dituztela esan digute. “Bertsoak kantatzeko aukera ematen badigute ondo, eta bestela



Amaia Agirre, 19 urte.
Euskal Filologiako ikaslea

berriz, guk sortuko ditugu aukerak”, esan digu Amaiak. Beraz, bertsoak abesteko aukera ezberdinak martxan ari dira jartzen gaur egungo bertsolari gazteak, “taberna arteko bertso txapelketak edota bertso-poteoa, esate baterako”.


Ez dira txapelketari begira egoten diren bertsolariak hauek, baina txapelketek bertsolariak ezagutaraztera emateko balio dutela esan digute, “hala ere, txapelketak ez dira inondik inora bertsolari onena zein den aukeratzeko frogak”. Era berean, gai jartzaileen lana oso garrantzitsu dela aipatu digute, eta bertsolarici nolako gaia jarri erabakitzeko, gai jartzaileen lana talde lanean egin behar dela aipatu digute: “Bertsoa ona ala txarra egitea, gaiaren arabera da askotan”.



ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea




LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 TOLOSA
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 ANDOAIN



ZUBI
AUTO ESKOLA

Ernio bidetia, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

EDURNE USTARIZ ANDOAINDARRA PANAMAN



Herritarrok Kultura Etxeko lehiatilan ikusi ohi dugu Edurne Ustariz. Bere lana kultur arloko administrazioaz arduratzea da. Hala ere, beste gai batengatik ekarri dugu Aiurriko orrialde hauetara Edurne. Iaz Panamara egin zuen bidaia dela eta panamatarren bizimodu eta bertan bizi izan dituen esperientziak ezagutzearren egin diogu elkarriketa.

Aiurri: Irailatik abendura bitartean kanpoan izan zara; non zehazki?

Edurne Ustariz: Panamako Darien probintzian izan naiz, Meteti herrian. Darien Panamako probintzia handiena da eta behartsuenetakoa. Darieneko oihanak Kolonbiarekin egiten du muga.

Ai.: Nolatan bururatu zitzazun esperientzia hori bitzitea?

E.U.: Aspalditik datorrit zerbait egiteko grina hori. Hirugarren Munduko egoera zuzenetik ezagutu eta nire pertsona abal nuen neurrian lana edo kooperaziorako eskaini. Hasiara batean garbi neukan lan ibarduera zehatz bati ez niola nire burua lotu nahi. Nire asmoa, joango nintzen lekuan integratu eta sortzen ziren beharretara moldatzea zen. Azken finean esperientzi pertsonal osoa bizi nahi nuen. Hori zela eta, tankerako esperientzia egin duten jende askorekin hitzegin ondoren, Panamara joateko aukera izan nuen. Aukera hau, Zumarragako Moja Merzedarien eskutik jaso

nuen (Hnas. Mercedarias de la Caridad).

Ai.: Nora joan, zenbat denborarako, zertara. Zaila izan al da hori guztia erabakitzea?

E.U.: Era horretako erabakiak ezin dira itsu-itsuan hartu, ez dira erabaki xamurrak izan. Alde batetik zenbat denborarako joan erabakitzea eta lantokian baimena lortzea; bestetik, nora eta zein talde edo instituziorekin joan ... Erabaki zailak eta denbora luzea hartzen dutenak izan dira.

Ai.: Zer egin duzu bertan?

E.U.: Galdera zaila da bitz gutxitan erantzuteko. Metetira iritsi nintzenean bango misiolari taldean integratu nintzen. Lehenengo egunetan inguruko Komunitateak ezagutu, jendearekin zuzenean barremanak egin, bat eta besteekin mugituz proiektu desberdinak ezagutu... Proiektu hauetan sartzen zarenean ezin zaitezke joan bakoitzak ditugun pentsamoldeak edo lana egiteko erak inposatuz. Hango bizitza eta kulturara moldatu behar duzu. Lehenbizi ikasi eta ingurua ezagutu lan zuzenean hasi aurretik. Horretarako denbora behar da. Prozesu horretan, txikiak badira ere, laguntza eskeintzen duzu. Askotan, bertako jendeari zure pertsona eta denbora beraien arazoak entzuteko eta horietaz mintzatzeko. Emakume talde baten eskaerari erantzun nabian alfabetatze taldea osatu genuen, eta hau aurrera eraman abal izateko haurtzaindegi zerbitzu bat ere.

Ai.: Panamaz dugun irudia eta bertako errealitatea gauza bera al dira?

E.U.: Ez, asko aldatzen da. Iiz du zer ikusirik. Panamaz dugun irudian "canal"ari lotuta dago.





Honen inguruan mugitzen da komertzioa, dirua eta interes ezberdinak. Beharrak handiak dira, gebien bat Darien probintziari dagokionez. Panamericana errepidea Darienen eteten da. Komunikazioa da arazo larrienetakoa. Desnutrizioa, beziketa,

osakidetza... Kulturalki ere injustizia handia dago. Lurralde berriz, oso ederra da eta naturak eskaintzen dituen aberastasunak izugarriak dira. Klima tropikala da, oso bezea, batzuetan gogorra egokitzeko. Baina edertasun askoren atzetik, miseria agertzen da: Giza miseria eta miseria pertsonalak.

Ai.: Zer nolako bizimodua dute bertako biztanleek?

E.U.: Biztanleek biru etnietan beretzten dira: nekazariak, indigenak eta afroak, bakoitza bere ezaugarriekin. Beraien artean ere diskriminazioa handia dago. Panaman darienitak, eta gebienbat bat indigenak, zibilizatu gabeko pertsonatzat jotzen dituzte. Darienitak ez du bizimodu erraza. Kontutan har dezagun komunikazioaren arazoak dakarrena: landatu duten produktua salmentara ateratzeko zailtasunak, edozein material edo janari sartzean askotan bidean hausten da, bideak gaizki edo erdi itxita daudenean ospitalera iristeko zailtasunak, edozein tramitazio ofizial egiteko orduan... Gogorra da bai hango bizimodua! Denbora eta pazientzia garatzen dituzu ban.


Ai.: Nabikoak al dira hemendik bidaltzen dizkiegun laguntzak?

E.U.: Ematen den laguntza guztia ona da, nabiz eta jabetu, nik ikusi dudanaren arabera, zen-

bait gauzek irtenbiderik ez dutela. Laguntza, ordea, ez da karitate hulsean utzi behar. Beraiek asko eskertzen dute laguntza, baina berez, beraiek inplikatu behar dute nahi duten gizarteraren eraikuntzan. Gu ez gara inor bara joan eta iruditzen zaiguna inposatzeko. Nabikoa ote den laguntza! Ez noski! Ezer baino gehiago, Darienen dirua behar dute hainbat proiektuei aurre egin abal izateko.

Ai.: Nolako esperientzia izan da? Errepikatuko al zenuke berriro?


E.U.: Esperientzia pertsonala oso aberatsa izan da. Hiru hilabeteak motz gertatu zaizkit eta Metetin bizi izan dudana ezin izango dut inoiz ahaztu. Bestalde, biru hilabeteak asko eskaini didatelako ustetan nago, Panamako errealtatearen ardatz nagusiak egiaztatzeko aukera izan baitut: gartzela, ospitala, administrazioaren funtzionamendua, indigenekin bizitza, hiriburuko miseriak, kultur ezberdinak..., eta jende zoragarriekin topo egitea. Gabonetan etorri nintzen Andoainera eta nabikoa aldapa gora egin zait handik honako aldaketa. Ez naiz oporretan egon, eta orain denbora behar dut gauzak pentsatu eta asimilatzeke. Hori bai, berriro horrelako esperientzia bat bizitzekotan, denbora luzeagorako izango da.



EUSKALDUNA KIROL ELKARTEA

Ettxeberrieta zelaian jokatuko duten azken urtea

Euskalduna kirol elkarteak futbol eta saskibaloia taldeek osatzen dute. Bi kirol talde horien liga aurrera doa, eta emaitza onak lortzen ari dira biak. Bada, ordea, kirol emaitza horiek baino garrantzitsuagoa den zerbait: Josetxo Guruzega Euskaldunako lehendakaria hil zenetik, taldearen arduraren eta eginbeharrekin aurrera jarraitzeko kirol taldearen lehendakaria eta gainerako karguak hautatzeko hauteskundeak egin dira. Horrez gain, Ettxeberrieta futbol zelaiari azken agurra eta 75. urtemuga ospatzen ari dira.



Jose Joakin Jauregi.
Euskaldunako lehendakari berria.

Aiurri: *Lehendakariaren hautaketa nola burutu da?*

J. J. Jauregi: *Ez da inor aurkeztu lehendakari izateko. Epea bukatu egin zen, eta norbait aukeratu behar genuen. Gure artean hitz egin ondoren, lagunek lehendakaria nik izan behar nuela erabaki zuten. Hala ere, denek laguntza izango dudala esan didate. Orain arte bezala, guztion elkarlana da garrantzitsuena.*

Ai.: *Noiz arte izango zara lehendakaria?*

J. J. Jauregi: *Lehendakaritza hartu dudana unetik jarri dugu uzteko epea ere. 1998. urteko ekainera arte hartu ditut kargu horiek. Data horren zergatia, denboraldia orduantxe amaituko dela da. Hamalau urte nituenean sartu nintzen Euskaldunako futbol taldean, eta bost urteren buruan, direktiban sartu nintzen. Gure nabia Euskaldunak dauden 150 mutil gaztek kirola egin dezatela da. Horregatik jarraitzen dut lanean, baina beste batzuek ardura hori hartzeko ordua heldu da honez gero.*

Ai.: *Zein lehentasun dituzue denboraldi honetarako?*

J. J. Jauregi: *Euskaldunaren lehentasuna orain arte bezala jarraitzea da. Josetxo Guruzegak hasitako lan horretan abalik eta ondoen ibardutea eta denboraldi on bat egitea dira gure lehentasunak. Horretarako, guztion elkarlana ezinbestekoa izango da, batek ezin baitu hori guztia egin.*

Ai.: *Pentsatu al duzue Josetxori omenaldiren bat egitea?*

J. J. Jauregi: *Omenaldirik onena lana ondo egitea izango da. Aurten futbol zelai berria egingo dutela espero dugu, eta Ettxeberrieta zelaiari agur esan behar*

diogu. Beraz, hori guztia ospatzeko ekitaldi ugari egingo dira, eta horien artean, izango da Josetxo omentzeko ekitaldiren bat edo beste. Errealak eta Osasunaren arteko partidua antolatu nabian gabiltza, baina zuzen. Hala ere, Aste Santuan Errealak antolaturiko jubenil mailako nazioarteko txapelketa Ettxeberrieta zelaian jokatu

Ai.: *Zein aurrekontu duzue denboraldi honetarako?*

J. J. Jauregi: *Denboraldi honetarako sei milioi t'erdi pezetako aurrekontua dugu. Batzuentzat askotxo izan daiteke, baina kontutan hartu behar da saskibaloia eta futbol taldeentzako dirua dela, eta beraz, ez da hainbeste. Gauza asko egin nahi izaten da, baina muga, diru kopurua da. Bestalde, urtetik urtera aurrekontua betetzea zailagoa denez, beste herrietan egin obitu duten bezala, jokalariei kuota bat jartzeko asmotan gabiltza.*

Ai.: *Zenbat futbol talde dago eta zein postutan?*

J. J. Jauregi: *Bost talde daude, eta nabikoa postu onean daude denak. Erregionalak bigarren postuan daude, eta oborezko ligako jubenilak sailkapenaren erdialdean daude. Bigarren mailako jubenilak kopa jokatzeko hasiko dira, eta kadetei dagokienez berriz, goi kadeteek beren kategoria mantenduko dutela uste dugu, eta behe kadeteek lehen urtea dutenez, konpetizioa ezagutzeko aukera izango dute.*

Ai.: *Jokalari guztiak andoaindarrak al dira?*

J. J. Jauregi: *Behe mailako ekipetako jokalari guztiak andoaindarrak dira, baina goi mailakoak*

ez. Zenbait arrazoiengatik, batzuetan ezin da herritarrez osaturiko talde bat egin, eta beraz, momentu honetan badira herritarrak ez diren jokalaria. Hala ere, Euskaldunak ezarritako baldintza bat jokalarien erdia herritarrak izatea da.

Jimi Brosa, Euskalduna saskibaloitzailearen entrenatzailea.

Zazpi urte daramatza saskibaloiko entrenatzaile gisa, eta gustura dago egiten ari den lanarekin. Hasieran, saskibaloitzaile talde bat bakarrik osatu zuten arren, egun jada hiru talde ezberdinek jokatzen dute astebururo. Eskola mailako neskek saskibaloian entrenatzen ibili den arren, ezin izan dute talderik osatu, eta futboleko bezala, mutilek osaturiko taldeak baino ez daude Euskalduna kirol elkartearen.

Aiurri: Harrera ona izan al du saskibaloitzaileak herria?

Jimi Brosa: Bai, bala da. Duela zazpi urte talde bat osatu genuen, eta gazte gutxi ziren orduan saskibaloia gustuko zutela esaten zutenak. Orain berriz, hiru talde osatzeaz gain, eskoletan ere saskibaloia gazte askok praktikatzeko dute, eta asko dira partiduak ikustera etortzen direnak. Horrezaz gain, Askatuak taldean andoaindar batek jokatzen du eta saskibaloiko arbitro gisa beste sei herritar daude.

Ai.: Zein kategoriatan jokatzen dute saskibaloitzaileak?

J.B.: Hiru talde ditugu: kadeteak 3. postuan daude, jubenilak biga-

rren postuan, eta seniorrak Gipuzkoako 6. postuan daude. Liga bakarrik jokatzen dute hiru taldeek, eta irail-maiatza bitarteko liga horretan kirola egiteaz gain, ondo pasatzen dute.

Ai.: Zenbat pertsona osatzen dute taldea?

J.B.: Hamabi jokalarik osatzen dute ekipoa, gutxi gora-behera. Gebienak andoaindarrak diren arren, bada Billabonako eta Lasarteko zenbait gazte. Horrezaz gain, partiduetan jolastu ezin duen arren, beste zenbait gazte entrenamenduetara etortzen da.

Ai.: Edonork bar al dezake parte hartean?

J.B.: Bai. Entrenamenduak astean hiru aldiz izaten dira, Allurralde kiroldegian. Gure nabia saskibaloia gustukoa duen orok parte hartzea da.

Ai.: Zein dira denboraldi honetarako helburuak?

J.B.: Helburuen artean saskibaloitzaile taldeak finkatzea da. Hau da, seniorrak egungo kategorian mantentzea. Beste bi mailetako taldeetan, jokalarien kopurua gehitu edota osatuz, kategoria igotzea.



Zabala

Ordukari Bitxitegia

RACER **LOTUS**
TISSOT **SEIKO**

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

JOSE ANTONIO URBIETA
GARRAIOAK

URTE OSOAN SU EGURRA

BELARRA ETA LASTOA BERE GARAIAN

Lege Zaharren Enparantza, 4-2
ASTEASU (Gipuzkoa)
☎ 69 26 76 - 69 30 92

ARANBURU

agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur

Asteasu

AITZONDO ELKARTEAREN TXANGOIA. 1960.



Zutik ezkerretik eskuinera: Jose Maria Usabiaga, Joxe Garmendia, Jose Luis Agote, Juanito Otero, Hilario Usandizaga, David Sarasola, Jose Leon Usabiaga, Migel Kortajarena, Jose Antonio Urruzola (atzean), Juan Jose Otero, Agustin Otaegi, Martzelino Bikuña, Antonio Eizmendi (atzean), eta Joakin Urruzola guztien atzean.

Makurtuta ezkerretik eskuinera: Jesus Sarasua (bizkarra ematen), Jesus Bikuña, Francisco Sarasola, Ramon Otero, Luis Mari Sarasola (?), Iñaxio NARBARTe, Joxe Eizmendi, Antonio Sarasua, ezezaguna, Txomin Txapartegi, **Celestino Tapia** eta Matias Vitoria.

Asteasuko Aitzondo elkartekock egi-
ten zituzten txangoetako argazki
bat da honako hau. Agote autobu-
sean ibiltzen ziren alde batetik bestera,
eta Gernika, Lizarra eta herri gehiago
ezagutzeko aukera izan zuten asteasua-
rrek txango hauen bitartez.

Hogei lagun inguruk sortu zuten
duela berrogei urte Aitzondo elkarte,

eta herrian ekintzak egiteko eta jende-
ak biltzeko toki bat izateko helburuare-
kin sortu zuten elkarte. Asteasuk Aiz-
tondo bailarako herrien alkatetza izan
zuelako datorkio elkarteari Aitzondo
izena.

Informazio eta argazkia, argazkian
bertan ageri den Celestino Tapiak eskai-
ni dizkigu.

Maria Pilar Aranburu. Billabonako liburuzaina.



-Zenbat herritarrek dute liburutegiko txartela?

Egun, 2.793 herritarrek dute liburutegiko txartela, horietatik 102 bazkide berriak dira. Hala ere, datu horiek ez dira guztiz errealak. Bazkide batzuk, beharbada, ez dira Billabonan bizi edota ez dute txartelaren erabilera egiten, eta beraz, bazkide kopuru erreala zerbait txikiagoa da. Billabonako herritarrez gain, inguruko herrietako lagunak ere liburutegiko bazkide dira.

-Zein jendek irakurtzen du gebien?

Gebien irakurtzen dutenak emakumeak dira. Irakurzaletasuna handia da, eta emakumezkoena berriz, handiagoa. Liburu atsegin eta onak zeintzuk diren esateko askotan eskatzen dute.

-Zein liburu da gustukoena edo gebien irakurtzen dena?

Adinaren eta bizkuntzaren arabera, liburu bat baino gehiago dira gebien eskatzen dituztenak. Haurrek, euskaraz, Juan Kruz Igerabide, Ateka eta Xebe Calleja idazleen liburuak dituzte gustukoena; gaztekeraz, Michel Ende eta Dabl idazleen lanak. Bestalde, Asterix eta "Colección pesadillas" liburuak arrakasta handia izan dute. Helduen artean, euskaraz, Atxaga, Patxi Zabaleta eta Saizarbitoria idazleak eta "Kutxidazu bidea Isabel" liburuak dira gebien irakurtzen direnak; gaztekeraz, Perez Reverte eta García Marquez idazleak. Txalapartaren liburuak, eta "El Médico" eta "El hombre que susurraba a los caballos" liburuak dira gebien irakurtzen direnak.

-Liburuzainaren lana zertan datza?

Jendeari laguntza ematea, hau da, informazioa aurkitzen laguntzea. Hori da niretzat liburuzainaren lanik garrantzitsuenak. Horrezaz gain, liburutegiko dokumentu eta liburuen katalogoa, sailkapena eta abar egiten dut. Egun, sare informatikoan sartzeko lanetan gabiltza, gainerako liburutegien antzera.

-Zein ekintza antolatzen dituzue?

Ekintza ezberdinak antolatzen dira urtean zehar. Haurrei zuzenduriko ipuinaren ordua urtean zazpi aldiz antolatzen dugu. Irakurketa gidak ere ematen dira argitara; iaz hiru eman ziren. Horrezaz gain, ikasle eta irakasleen bisitak eta erakusketak ere antolatzen dira. Iaz, liburu nola egiten den azaltzeko erakusketa antolatu genuen. Aurten berriz, beste erakusketa bat antolatzeko lanetan gabiltza. Liburu gidei dagokionez, beldurrezko liburuen gida argitaratuko dugu.

PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta. Beti bezala gure pertsonaia ezaguna da oso, eta beraz, erreza izango duzue nor den asmatzea.

Saria bikaina da oraingoan ere: **Adu-nako Urritza sagardotegiak bi pertsonentzako afaria** eskaini digu oparitzat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia. 20.140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

SAGARDOTEGIA
JATETXEA

URRITZA



IBILALDIAK**ANDOAIN**

Martxoak 2: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta, Trekua eta Iturgoiengo Trinitatera ibilaldia.

Martxoak 16: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta, Altungana, Saibigain eta Anboto mendietara irteera.

HAURRENTZAKO IBILALDIAK**ANDOAIN**

Martxoak 1-2: Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta, Lizarako aterpera (Pirineoetan) ibilaldia.

BILLABONA

Martxoak 16: Aizkardi mendizale taldeak antolatuta, Gorbciara ibilaldia.

MUSIKA**ZIZURKIL**

Martxoak 14: Itziar Maiz sopranoaren musika emanaldia. Zizurkil goian, Abeletxe aterpean, gaueko 22:30etan.

ZINEMA**BILLABONA**

Martxoko zine programazioa

The Wonders
El perro del hortelano
Un día inolvidable
Space Jam

Haurrentzako zine emanaldia

Gezi urdina
Matilda

IKUSENTZUNEZKOAK**BILLABONA**

Martxoak 13: Inurrategi anaiek eskainitako ikusentzunezkoa. Gurea zinema aretoan, arratsaldeko 20:00etan.

BESTEAK**ADUNA**

Martxoak 8: Emakumearen nazioarteko eguna ospatzeko afaria. Izena emateko edota informazio gehiago hartzeko deitu 693930 telefonora (Ainhua).

ZIZURKIL

Martxoak 7: Emakumearen nazioarteko eguna ospatzeko afaria, Zizurkil beheko jubilatuen tabernan. Izena emateko azken eguna martxoaren 5a. Tfno: 693554.

ANTZERKIA**ZIZURKIL**

Martxoak 7: Pilar Guerra eta Ritxar Zumalaberen "La cabra enamorada" antzezlan. Zizurkil goian, Abeletxe aterpean, gaueko 22:30etan.

HITZALDIA**ZIZURKIL**

Martxoak 5: Teresa del Valle antropologak eskainiriko "Matriarcado vasco: mito y realidad". Zizurkil beheko kultur etxean, arratsaldeko 19:30etan.

MERKATU TXIKIA**ANDOAIN**

Pisua salgai: Aiztondo kalean, 3 logela, sukalde ederra, komuna, trastero txikia etxe barruan eta trastero ederra etxetik kanpo. Dena berrituta dago orain urtebete. Bizitzera sartzeko prest. Prezioa 12.750.000 pzta. Tfno: 590158. (Bazkalgarai edo afalgarai deitu).

Rikardo Arregi Hemeroteca: Euskarazko aldizkari zaharrak biltzen ditugu hemerotekako fondoa osatzeko: Anaitasuna, Zeruko Argia, Argia, Goiz Argi, etab. Informazio gehiago Larramendi Bazkuncan (Elixabete Jauregi edo Xabier Lasa), 300733 telefonora deiturik.


Eskiak salgai: 1'40m. eta 1'45m. koak. 8-10 urte bitarteko haurrentzat. Ikasteko paregabeak. 4.500 pzta. pare bakoitzak. Deitu 907-591371 telefonora.

Andregai soinekoa salgai: Udaberri-rako aproposa, mahuka motza (manga). Tfno: 693913.

Altzariak salgai: Egongelako altzariak, estilo modernokoak salgai. 3'20 m. ko luzera modulotan. Tfno: 693913.

ZIZURKIL

Garajea salgai: Bi solairuko garajea, ofizinetarako aproposa. (Ura eta argia barne). Tfno: 691772.

KOMIKIA

97 WENTXI



JOSEBA

Altzariak

Kaletxiki 6, Fax eta Telf. 59 07 61
ANDOAIN

Zure kirol
 denda

KIROLAK EDURNE

Kaletxiki 6, - ☎ 59 19 58 **ANDOAIN**

*Kirola egiteko behar
 duzun guztia*




GORE-TEXeko
 arropak eta botak



IGLU dendak



Mendirako behar
 duzun guztia



BORDA

jatetxea

A N D O A I N

EUROPEAN SCHOOL

HIZKUNTZ AKADEMIA

✓ JATORRIZKO IRAKASLEGO
TITULUDUNA

✓ TALDE MUGATUAK

✓ IKASTAROAK URTE OSOAN
- "STEP UP" PROGRAMA,
ESKOLARAKO LAGUNTZA
- ENPRESETARAKO
IKASTARO BEREZIAK

✓ AZTERKETA OFIZIALETARAKO
PRESTAKUNTZA

✓ CAMBRIDGE, ALLIANCE FRANCAISE
TITULUTARAKO AZTERKETAK

✓ AU-PAIR, ✓ WORK-STUDY,

✓ HIZKUNTZA IKASTAROAK

IRLANDA-FRANTZIA-BREITANIA HANDIA

INGELES - FRANTSES

**Kale Berria, 10 Tel. - Fax 69 39 76
BILLABONA**

KALITATEA ETA
SEGURTASUNA ZURE
ZERBITZURA

URPA

AUTOBUSAK

☎ (908) 77 56 48

(24 orduak)

☎ 59 38 05

(Garajea)



Sorabilla auzunea, 53. Pol
ANDOAIN (Gipuzkoa)

fotocolor

ERREBELATUA ORDU
ERREBELATUA ORDU
EAN

Zure argazki
denda



Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN